


Kostuen kontabilitatea

EAZ Gradua: bigarren ikasturtea

Irakaslea: Gotzon Garmendia Aldasoro

Azterketa (2021-2022)

Donostiako Ekonomia eta Enpresa Fakultatea
EHU



Egilea: Beñat Zunzunegi



Gizapedia

gizapedia.org

KOSTUEN KONTABILITATEA
2022ko urtarrila

Teoria

Arrazoitu itzazu erantzun guztiak.

1. galdera: Kostu motak

Kasu hauetako adibide bana jarri, baldintzak zergatik betetzen dituen azalduz.

- (a) Kostu finkoa, zeharkakoa sailarentzat, zeharkakoa produktuentzat eta ekidinezina.
- (b) Kostu mistoa, zuzena sailarentzat eta zeharkakoa produktuarentzat.
- (c) Kostu finkoa, zuzena produktuentzat eta zuzena sailarentzat.
- (d) Kostu aldakorra, zuzena sailarentzat eta zeharkakoa produktuentzat.

Oharra: Langile kostuaren adibidea behin bakarrik jar daiteke.

2. galdera: Klasera bisitan etorritako profesionalaren jardunari buruzkoa

Zer esan nahi du errentagarritasun atariaren kontzeptua? Zer gehiago dakizu honi buruz?

3. galdera: Kostu egiturak

Egitura funtzionalak, kostu finkoen egozpen arrazinalekin, egitura funtzional arruntak baino mozkin gehiago eman al dezake, hasierako izakinik ez badago?

4. galdera: Aurrekontuak

- (a) Nola kalkulatu da ekoitzi nahi dugun produktu bukatuen kopurua?
- (b) Nola kalkulatu da aurreikusitako lehengaien kontsumoa?
- (c) Nola kalkulatu da aurreikusitako lehengaien erosketak?

5. galdera: Kostu estandarrak

- (a) Aipa ezazu kanpoko eta behin betiko arrazoi bat, ekoizpen gastu orokorretan, aurkako desbideraketa ekonomiko bat izateko?
- (b) Aipa ezazu arrazoi bat lehengaien aldeko desbideraketa tekniko bat izateko?

Aipa ezazu aurreko bi kasuetan, baldintza horiek nola eragiten dioten datorren ekitaldiko estandarraren ezartzeari.

Kostu egiturei buruzko ariketa

Enpresa batek asteroko datu hauek ditu:

- (a) Lehengaien hasierako izakinak: 5kg, 9EUR kiloko; bukaerako izakinak: 15kg.
- (b) Produktu bukatuen hasierako izakinak: 4 unit., 50EUR unitateko; bukaerako izakinak, 3 unit.
- (c) Lehengaien erosketa: 100 kg, 10EUR kiloko.
- (d) Aurrez kalkulaturiko gutxiketak: lehengaietan 5kg; produktu bukatuetan 3 unit.
- (e) Lehengaien kontsumoa: 1kg, ekoizitako unitate bakoitzeko.
- (f) Hornikuntza eta eraldaketa kostuak: 100h, 20EUR/h, finkoak 300EUR
- (g) Eraldaketako gastu orokorrak: aldakorrak, 200h, 11EUR/h, finkoak 200EUR
- (h) Merkaturatzea: aldakorrak, salmenten %10, finkoak: 250EUR
- (i) Administrazioa: 400EUR
- (j) Ekoizpena, 90 unit.
- (k) Salmentak, 90 unit, 80EUR/unit.
- (l) Biltegietako irteeren balorazio irizpidea: BBPH lehengaiantzat, eta FIFO produktu bukatuentzat.

Eskatzen da:

- (a) Lehengaien eta produktu bukatuen gutxiketak, kopuru fisikotan nahiz dirutan, aurrez, benetan eta gerora kalkulaturik.
- (b) Produktu bakoitzeko ekoizpen kostua, direct costing egituraren bitartez
- (c) Marjinak eta emaitza, direct costing bitartez.

Estandarren ariketa

Enpresa batek, datorren ekitaldian 1.000 produktu ekoizteko asmotan, datu hauek aurreikusi ditu:

Aurreikusitako datuak

- (a) 200kg lehengai kontsumitzea espero da (3EUR/kg)
- (b) Langile kostu zuzena, 100h, 12EUR/h
- (c) Ekoizpen gastu orokorrak, 3000Kw/h, 1.5EUR/Kw; eta horietatik 1.200EUR kostu finkoak dira
- (d) Aurreikusitako salmentak, 1.000 produktu, 15EUR/prod.

Benetako datuak

- (a) Benetako ekoizpena, 1.100 produktu bukatu eta 100 bideango produktu, horietako bakoitzak lehengai guztia eta beste kostuen %40 daramalarik
- (b) Hasierako izakinak: lehengaiak, 100kg, produktu bukatuak, 100 prod., bideango produktuak, 50 prod. (bakoitzak, lehengaiaren %80a darama eta beste kostuen %50)
- (c) Bukaerako izakinak, lehengaiak, 50kg.
- (d) Lehengai erosketak, 2.200kg, 2.9EUR/kg
- (e) Langile kostu zuzena, 1300EUR, 110h lan eginda
- (f) Ekoizpen gastu orokorrak, 5.000EUR, 2.800Kw/h kontsumitu dira
- (g) Salmentak, 1.050 produktu, 14.5EUR/prod.

Eskatzen da:

- (a) Produktu bukatu bakoitzaren ekoizpen-kostu estandarra kalkulatu, bere estandar tekniko, ekonomiko eta kostu bakoitzaren garrantzi erlatiboarekin.
- (b) Desbideraketa hauek kalkulatu eta azaldu:
 - (b1) Lehengaietan, eorsketa prezioen desbideraketa eta teknikoa
 - (b2) Langile kostu zuzena, ekonomikoa eta teknikoa, ekonomikoaren garrantzi erlatiboa ere kalkulatu eta azaldu
 - (b3) Ekoizpen gastu orokorrak, ekonomikoa, teknikoa, aurrekontuarena eta jarduerarena
 - (b4) Salmentetan, globala, ekonomikoa eta teknikoa.

OHARRA: Desbideraketa bakoitzean gertatzen denaren azalpena egin behar da ezinbestez. Beraz, kalkulu hutsak, azalpenik gabe, ez du ezer balio.